



Euskal Kazetariaren Elkarteak Terry Gouldi eman dio José María Portell 2010 Adierazpen Askatasunaren saria

- ***Matar a un periodista. El peligroso oficio de informar* liburuaren egile den kazetari iparramerikarra Bilbora etorriko da saria jasotzera, abenduaren 15ean.**

José María Portell Adierazpen Askatasunaren aldeko 2010eko sariko Epaimahaiak aho batez erabaki du **Terry Gould** kazetari eta idazle iparramerikarrari ematea saria, bere lan idatziaren bidez kazetaritzaren bozeramaile eta babesle bilakatu delarik nazioarte mailan.

Epaimahaiko kideen iritziz, adierazpen askatasunaren aldeko borrokaren ikurra da Gould, kazetaritzaren lanbide bikaina ikustarazten baitu mundu osoan. Bere lanaren bidez, bidegabekeriari aurre egiteko gaitasuna erakusten du eta ahotsa eta irudia ematen die, egia kontatzeko euren biziak emateko prest diren kazetari askori.

Bere bigarren edizio honetan, honako hauek osatu dute José María Portell Adierazpen Askatasunaren aldeko saria epaimahaia: Juan Carlos Martínez, Miguel Ángel Idigoras, Emilio Alfaro eta Mariano Ferrer; euskal prentsaren aniztasunaren ordezkari gisa. Carmen Torres Ripa kazetaria aritu da epaimahaiko-lehendakari lanetan eta, hauez gain, Lucía Martínez Odriozola eta Verónica Portell, AVP–EKE elkarteko lehendakari eta idazkari nagusi gisa, hurrenez hurren.



Informatzea, lanbidez

New Yorkeko Brooklyn auzoan jaio zen Terry Gould 1949an. Kanadan egin zituen bere kazetaritza ikasketak, 1984an narrazio laburren bilduma argitaratu zuen eta Vancouver-era joan zen bizitzera, bere kazetari ibilbide bikainari ekin zion bertan eta han bizi da oraindik.

Matar a un periodista. El peligroso oficio de informar (Los Libros del Lince) liburuaren egileak zekitena kontatzea krimen bakartzat zuten kazetari batzuen historiak birbizi zituen. Politkovskaya eta Konlonbia, Errusia, Filipinak, Bangladesh eta Irakeko beste sei kazetari ikertu zituen Terry Gouldek, liburu honetan kontatzen ditu kazetaritza narratiboaren ariketa bikain baten eskutik.

Lau urteko ikerketa sakonaren emaitza da liburuak, estatistika ofizialen arabera lanbide honetan aritzeko herrialderik arriskutsuenak eta biktimen jaioterriak bisitatu zituen Gouldek urteotan (Filipinak, Errusia, Kolonbia, Irak eta Bangladesh), lekuan bertan berriro zituela botereari eta ustelkeriari aurre egin zieten zazpi gizaki hauen bizitza eta heriotza. Bere bizitzak sakrifikatzera eraman zituen motiboak ulertu nahian, Gouldek euren adore itzela islatzen du eta haiek argitaratu ezinik geratu ziren zenbait istorio gogoratzen ditu.

Kazetariak ez dira bakarrik hiltzen gerren su gurutzatuan, informatzeagatik edota politikoen ustelkeria, mafien delinkuentzia, boteretsuen gehiegikeriak salatzeagatik ere hiltzen dira. Anna Politkovskayaren hilketa mundu osoko lehen orrialdeetako albistea izan zen. Aitzitik, badira informazioaren profesional gehiago ere, betiko isilarazi zituztenen biktimak bilakatu direnak.



SARIAK:

Kanadako Prentsa Elkartearen Saria Adierazpen Askatasunaren Defentsaren Aldeko Lanik Onenari. (Canadian Journalists for Free Expression 2009 Tara Singh Hayer Press Freedom Award).

Kanadako Polizia-Eleberrien Elkarteko Ez Fikziozko Libururik Onenaren Saria (Crime Writers of Canada Arthur Ellis Award for Best Non-fiction Book of 2009).

Urteko Politika Libururik Onenaren Sariko Finalista (2009 Writers Trust of Canada Award for Best Political Writing of the Year).

II José María Portell saria Adierazpen Askatasunari

AVP-EKEk ematen duen saria 2008an sortu zen, José María Portell euskal kazetariaren heriotzaren 30. urteurrenarekin bat, haren oroimena eta informazioaren eta adierazpen askatasunaren eskubidea era askean erabiliz errepresaliak, jazarpenak, atentatuak edo kartzela, edo bera edo bere familia arrisku larrian egonik, jasan dituen komunikabideetako profesional oroena omentzeko xedez.

Bere lehen edizioan, Britainia Handian erbesteratutako Elena Tregubovak kazetari errusiarrak jaso zuen saria.



Euskal Kazetariaren Elkarteak eman dio dagoeneko adierazpen askatasunaren erabilera saritzen duen sariaren berri Terry Gouldi. Kazetariak Bilbora bidaiatuko du datorren abenduaren 15ean, bere omenez egingo den omenaldi ekitaldian egoteko. Horrela eskatzen duten komunikabideekin elkarrizketak bideratzeko asmotan, abenduaren 14tik 16ra arte, osteguna, Terry Gould Bilbon geratuko da.

Edozein kontsultarako edo Terry Gouldekin elkarrizketa bat hitzartzeko:

Tfnoa: 94.410.6040

E-maila: asociacion@periodistasvascos.com

José María Portell (Barakaldo, 1933-12-7/Portugaleta, 1978-6-28)

José María Portell *La Gaceta del Norte* egunkarian aritu zen erredakzio buru gisa, eta zenbait urteren ondoren, *Hoja del Lunesko* zuzendari izendatu zuten. Era berean, Associated Press agentziako, La Vanguardia-ko eta ABCko. berriemailea izan zen Euskadin.

Tokiko kazetaritzari eskainitako dedikazio iraunkorrak gairik gatazkatsuenak jorratzera eramane zuen, eta ez bakarrik politikaren arloan, gizarte alorrean ere. Udaletako eta eskualdeko informazioek, denbora luzez, udaletako eta euskal probintzietako sektore menperatzaileek bere aurrean adi egoteko jarrera izatea eragin zuten. Estatu mailan oihartzuna zuten zenbait gatazkei dedikazio berezia eskaintzearen eraginez ospetsu bihurtu zen, irudi eztabaidagarri baten barruan mugatu zutelarik, hala ere, benetako prestigioa zuen informatzaile independente gisa.

1970-75 urteetan zehar, ETAren gaineko gaietan espezializatu zen Portell eta bi liburu argitaratu zituen talde terroristaren gainean: *Hombres de ETA* eta *Euskadi, amnistía arrancada* (Dopesa). Zenbait urteren buruan, bitartekari gisa aritu zen Gobernu eta ETAren artean, Euskadin benetako bakea lortzeko xedez.

1978ko ekainaren 28an erail zuten atentatu terrorista batean, orduz geroztik adierazpen askatasunaren aldeko ikur bilakatu zelarik Euskadin.